

**Ebazpena: R118/2023**

**Espedientea: R013/2020**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

### **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) aurrean aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zehazteko norik duen ordainarazteko eskumena SAINT PATRICH TECHNOLOGY SLk (PATRICH) langile jakin batzuei lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoei dagokienez 2015eko bigarren hiruhilekoan egindako PFEZaren konturako atxikipenen gainean. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 13/2020 espediente-zenbakiarekin.

### **AURREKARIAK**

1.- PATRICH merkataritza-sozietateak egoitza soziala eta fiskala Donostiako Berabera pasealekuko 8 zenbakiko ezkerrean ditu. Bere jarduera nagusia informatikako zerbitzuak ematea eta langile tekniko-informatikoak aukeratzea da Espainia osoan.

Donostiako egoitza fiskalean langileak aukeratzen ditu, eta PATRICHeko zuzendari bat arduratzen da horretaz. PATRICHeko gainerako langileek Madrilgo bulegoetan egiten dute lan, Princesa kalean.

2016ko ekitaldian, 1.622.667,06 euroko eragiketa-bolumena izan zuen.

**2.-** PATRICH ez dago alta emanda ZAEako zergapekoen erroldan, eta ez du autolikidaziorik edo aitortpenik aurkeztu haren aurrean, 2020ko apirilaren 15ean aurkeztutakoa izan ezik, zeina 2020ko lehen hiruhilekoko atxikipenei baitagokio.

**3.-** PATRICHEk lan-etekinak ordaintzen dizkie egoitza fiskala lurralde erkidean duten eta PFEZaren aitortpenak ZAEAn aurkezten dituzten pertsoneri, eta horiei dagozkien atxikipenak egiten dizkie.

**4.-** Lurralde erkidean egindako eta PATRICHEk 2015eko eta 2016ko ekitaldietan ordaindutako lan-etekinengatik atxikipenei buruzko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan ondorioz, ZAEAk ondorioztatu du bidegabe sartu zirela GFAn: 59.243,96 €, 2015eko ekitaldian, eta 90.947,04 €, 2016an.

**5.-** 2019ko irailaren 6an, PATRICHEk 2015eko eta 2016ko ekitaldietan bidegabe sartu zizkion atxikipenak bidaltzeko eskatu zion ZAEAk GFari.

**6.-** 2020ko otsailaren 12an, GFAk ZAEari jakinarazi zion 2016ko atxikipenak eta 2015eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoak itzultzea onartzen zuela, eta azken horiek zenbatzeko eskatu zion. Ostera, 2015eko lehen eta bigarren hiruhilekoei dagozkien atxikipenak itzultzea ezetsi zuen, preskripzioagatik.

**7.-** PATRICHEk GFAn aurkeztutako autolikidazioen arabera, honako hauek izan ziren 2015eko ekitaldian lan-etekinei egindako atxikipenen zenbatekoak: 1.

hiruhilekoan, 14.927,20 €, aurkezpen-data, 2015eko apirilaren 20koa; 2. hiruhilekoan, 13.759,06 €, aurkezpen-data, 2015eko uztailaren 23koa, eta sarrera-data, 2015eko uztailaren 25koa; 3. hiruhilekoan, 14.157,39 €, aurkezpen-data, 2015eko urriaren 21koa; eta 4. hiruhilekoan, 16.400,32 €, aurkezpen-data, 2016ko urtarrilaren 25koa.

**8.-** 2020ko apirilaren 14an, ZAEAk inhibitzeko eskatu zion GFari, 2015eko bigarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoan egin gabeko lanengatik ordaindutako lan-etekinei dagokienez PATRICHek egindako PFEZaren konturako atxikipenak ordainaraz zitzan, baina GFAk atzera bota zuen 2020ko maiatzaren 6an.

**9.-** 2020ko ekainaren 2an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete egin da GFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**1.-** Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 2.- Preskripzioa

Arbitraje Batzorde honek behin baino gehiagotan eman du bere iritzia gatazka honen inguruan, besteak beste, Arbitraje Batzordearen honako ebazpen hauetan: uztailaren 28ko 39/2022, 40/2022, 41/2022, 42/2022, 43/2022 ebazpenetan, uztailaren 6ko 76/2022 Ebazpenean, abenduaren 15eko 174/2022 eta 176/2022 ebazpenetan, eta berriagoetan, hau da, ekainaren 23ko 75/2023, 74/2023, 73/2023, 72/2023, 70/2023 eta 68/2023 ebazpenetan. Ebazpen horietan eta horietan aipatzen den jurisprudentzian ondorioztatzen denez, jurisprudentzia baketsua eta errepikatua da administrazioen arteko kreditu publikoaren eskubidea aurrekontu-izaera publikoko eskubidea dela, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa, eta lau urteko preskripzio-epea, kasu honetan, GFAn atxikipenaren bidegabeko sarrera egiten den unean hasten dela. Gainera, ondorio horrek Auzitegi

Gorenaren abala jaso du berriro; horixe berretsi du urriaren 11ko 1240/2023 (ECLI:ES:TS:2023:4217) eta urriaren 27ko 1344/2023 (ECLI:ES:TS:2023:4430) epaietan.

Horrenbestez, 2015eko bigarren hiruhilekoan GFAn bidegabeki sartutako atxikipenei dagozkien zenbatekoak 2019ko erreklamatzeko epea uztailaren 25ean preskribatu zen, eta, beraz, ZAEArri itzultzeko eskatu zitzaionean, 2019ko irailaren 6an, preskribatuta zegoen haren aldeko kreditu hori.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Deklaratzea preskribatuta dagoela ZAEAk duen eskubidea, GFARI erreklamatzekoa itzul diezazkion PATRICHEK langile jakin batzuei ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak —2015eko bigarren hiruhilekoan GFAn bidegabeki sartutakoak—.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta SAINT PATRICH TECHNOLOGY SLri jakinaraztea.